



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

**EUSKARAREN ERABILERA
BIZKAIKO IRAKASKUNTZAN**

**HEZKUNTZA SAILAREN
ADIERAZPENA**

Gasteiz, 1982ko urriak 22

AURKEZPENA:

Azken urteotan behin baino gehiagotan eztabaidatu izan da Bizkaian euskara edo euskaraz irakasterakoan zein hizkuntza-ereduz baliatzea komeni ote den: bertako euskalkiaz, *bizkaieraz*, ala hizkuntza-eredu bateratuaz, *euskara batuaz*.

Eztabaidok, sarri askotan lekuz kanpora atera izan badira ere, gehienetan ondoko puntu hauen inguruan mamitu dira:

- *Ahoz eta idatziz jokabide bera ala desberdina eramatea komeni da, Bizkaiko ikastetxeetan, euskara eta/edo euskaraz irakasterakoan?*
- *Jokabide berdinez ala bereziz jardutea komeni da Bizkaiko eskualde desberdinetan?*
- *Irakaskuntzan bizkaierari eta euskara batuari kabida ematekotan, zer adinetan komeni da bizkaieraz jardutea, eta noiztik aurrera euskara batuaz?*
- *Etxetik erdaldun diren umeentzat zein jokabide hobesten da?*
- *"Bizkaiera" esaterakoan, batez ere idatzizko zereginetarako, zein eredu konkretuz ari gara: zein ortografiaz, zein morfosintaxi- arauz, etab...*

Hezkuntza Sailak, arazo honetan erantzukizun zuzena duen erakunde publikoa denez, eman izan ditu inoiz gai honi buruzko zenbait argibide eta irizpide orokor: hasieratik beretik agertu izan du, horrela, zentzuzko orekagune eta gehiengoarentzat baliozkoa izango den irteera-bide bat aurkitu beharra.

Euskal irakaskuntzak eskakizun desberdinei erantzun behar die, bere ustez, helburu nagusia beti ere ikasleen euskalduntze eta alfabetatzea izanik: eskola-umea bere bizigiro eta gizarte-ingurune hurbilean egoki txertatzeko eta ingurune horrekin etenik ez sortzeko, batetik, bertako euskalkiaren erabilera erraz eta bizia segurtatu behar zaio; eta euskara batua erakutsi behar zaio, bestalde, egungo eta bihar-etzietako euskal belaunaldi gazteen elkar ulerpenerako eta kultur dimentsio osoaz jabetzeko tresnarik egokiena berau baita. Eskakizun biok oinarritzko euskalduntze- edo alfabetatze-prozedura horren batasunean eraman beharrekoak direla deritzo.

Euskaltzaindiak ere, bere eginkizunari zuzenean dagokion hizkuntza-ikuspegiaren haritik, azaldua du puntu honetaz duen jarrera. Bere VIII. Biltzarreko Adierazpenak, hain zuzen, honela dio 5. puntuan: *euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak azertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz*. Ondoko bi arrazoibideok darabiltza berak txosten berean, baldintza bi horien ezarpenerako:

- Euskara hizkuntza bat dela eta ez hizkuntza asko, eta hizkuntza horretan ortografia bat bakarra behar dela, bai euskara batuan eta bai euskalkietan.
- Sarri gertatzen dela gaur hizkuntzaren barnean hesiak geroago eta gogorrago bihurtzea, elkarganatu beharrean bata bestetik urunduaz: *a* organikoaren erabilera, mugagabearena eta beste hainbat arau, horrela, bere jatorrasunean mantentzea komeni da euskara batuan zein bizkaieran.

Bai Hezkuntza Sailaren eta bai Euskaltzaindiaren argibideok baliagarriak dira, jakina, bere orokortasun horretan. Eta, alde horretatik, erreferentzia gisa laguntza-bide ohargarria eskaintzen dute. Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan bideratzeko argibide horiek ez dira ordea, bistan denez, aski: hasieran aipatzen diren galderei eta haien antzeko beste hainbati erantzun xehe, zehatz eta ongi mugatua eman beharra dago, aitzitik, proposamen-araudi eraginkor batera iritsi gura bada. Horren premia ezin nabariagoa da, bestalde, bertako irakaskuntzan batzuen eta besteen ustez ageri diren oztopo eta desegokitasunak kontuan harturik.

Guzti horren ondorioz, honako adierazpen hau agertzen du Hezkuntza Sailak.

1. IRIZPIDE NAGUSIAK

- 1.1. Euskara hizkuntza bakarra da. Autonomi Estatutuaren 6. artikulua dioen bezala Euskal Herriaren berezko hizkuntza da euskara eta, gaztelaniarekin batean, Autonomia Erkidegoan hizkuntza ofiziala.

Euskaldunok mendez mende erabili ditugun euskalkiek osatzen dute bestalde, orain ere, euskal hiztunen ohiko hizkera-bide bizi nagusia: bakarra den hizkuntza hori euskalki bidez ezpain-belarrietaratu ohi da, normalean, bizi-eremu arrunt eta ugarienetan. Euskalki horietariko nagusi bat, biltzen duen hiztun-kopuruaz eta bere baitan ageri dituen nortasun-ezaugarri bereizleez, bizkaiera da.

Hezkuntza Sailak bete-betean onartzen du gure hizkuntza-egoeraren nolakotasun hau: hizkuntza bakarra da euskara eta, aldi berean, lekuan lekuko hizkera eta euskalkietan mamitzen da, aho-belarrizko zereginiei dagokienez, euskaldungoaren zatirik nagusienean.

- 1.2. Euskaldunok badugu gainera, idatzizko zereginetarako batik bat baina baita jendarterako azalpide amankomun gisa ere, hizkuntza-eredu bateratua: euskara batua. Euskalkiek enbor berekoa duten zati handi horretan oinarritua dagoenez, euskaldun guztion lanabes eta ondare da hizkuntza-eredu bateratu hori, eta halakotzat hartzen ere du Hezkuntza Sail honek.
- 1.3. Euskara batua neurri handi batean erdialdeko euskalkietan oinarritua dagoenez, bizkaieratik eredu bateratu horretarainoko tartea nabarmenki handiagoa da Autonomia Erkidegoko beste bi euskalkietatikoa (gipuzkera, nafarrera) baino.

Hizkuntza-eredu horretaz jabetu ahal izateko zailtasun egiazko bat dago hor beraz, Hezkuntza Sailak inondik inora ere ahaztu ezinezkoa, bai etxetik bizkaiera dakiten eskola-umeentzat eta bai, oro har, bizkaierazko hiztun-eskualde sendoetako ikasle erdaldunentzat.

- 1.4. Hezkuntza Sailak berebiziko garrantzia aitortzen dio, oro har, euskarak indarra duen eskualde eta bizigiroetako eskola-umeen artean lehenengo eta behin bertako hizkera-bidearen ezaguera sendotu eta hartaz baliatzeko mintzamina lantzeari. Badirudi, izan ere, eskola-umeari etxetik ikasiak edo erdi ikasiak dakartzan hizkuntza-kodeak bat-batean "zuzendu", "hobetu", "osotu" edo antzekorik egin nahi izateak sarri baino sarriagotan inork desio ez duen hura eragiten duela: etxetik dakarren hizkuntza-gaitasuna ahuldu, indargetu eta, hainbatetan, bere euskaraz lotsaraztea.
- 1.5. Hezkuntza Sailak ez du ahazten % 20ra ez direla iristen, Bizkaiko biztanleria osoaren baitan, izatez euskaldun direnak. Hitz egitez gutxiago, agian, hainbat arrazoi direla medio. Komunikabideak, garraio-sistemak eta gainerako gizarte-harremanak egunetik egunera indartzen ari dira bestalde, eta herrialde bateko eta besteko euskaldunon elkar-ezagutza eta harreman-tratuak ugaritu baizik ezin egin daitezke horren guztiaren ondorioz. Biztanle erdaldunen kopuru zabal horien nondik norakoa bideratzerakoan ezin era daitezke hortaz eskualde mailako soluziobide apartekoak, elkarrekiko loturarik gabeak. Horrelakoetan, aitzitik, lekuan lekuko bizigiro eta gizarte-ingurune hurbila oso kontuan hartzeaz gainera ezinbestekoa da Autonomia Erkidegorako euskalduntze-plan osatuak eratzea eta, horren arabera, bertako belaunaldi gazteei hizkuntz edo bateratuaren arrazoizko gaitasun-ezaguera eskuetaritzen ahalegintzea.
- 1.6. Hezkuntza Sailak ez deritzo zuzen euskara batua eta euskalkiak kontrajartzeari, bata bestearen ukatzaile eta are bateraezinak bailiran aurkeztuz.

- ez deritzo zuzen euskara batua bizkaieraren hiltzaile gisa azaltzeari: bizkaiera, gainerako euskalkiak eta, horrenbestez, euskara osoa hil ala biziko kinka larrian daukatenak auzo-erदारak dira nagusitasun osoz (gaztelania, Autonomia Erkidegoan), eguneroko bizibideak behin eta berriro azaltzen duenez.

Alboko erdal hizkuntza indartsuen ondoan ditugun indar apurrak elkartuz erdal erasoaldi latz horri ahalik eta era probetxugarrienean aurre egiteko sortua da hain zuzen, ezertarako izatekotan, euskara batua.

- Kaltegarri iruditzen zaio, orobat, bizkaierazko azalpen-emankizun desberdinak arlotekeria, ezjakintasun eta gizarte-uren kontrako grina itsuen seme bailiran hartzeari. Horrelako jokabideek badute, egileek begiz jotako gogo-asmoak gora-behera, aski ondorio txarrik ekartzeko arrisku bizirik: hainbat euskaldun etxetik dakien eta beharrezko jaria kortasunez erabil dezakeen hizkera-bide bakar horretaz lotsaraztea eta, bere euskara besteena baino txarragoa dela iritziz, lehendik ere hartarako tentabide ugari falta ez zaionez, erdarara pasaraztea. Haurrari bere etxeko hizkera-bidearen harrotasuna bihurtu beharra dago, alde horretatik, hizkuntza-trebetasun ororen muina osatzen duen mintzamina -lehendik ere zorigaitzoz aski kamustua- itxuratxarki ahuldu eta birrindu nahi ez bada.

Bizkaiera ez da, Hezkuntza Sail honen uste sendoz, euskara batuaren kontrako alternatibatzat hartzekoa: bizkaiera euskara da noski, gainerako euskalki guztiak bezalaxe, ez euskaldun guztion hizkuntza-eredu bateratuaren parez pareko alternatiba literarioa.

- 1.7. Bizkaiko hizkuntza-egoera, beste eskualdeetan bezalaxe, oso desberdina da leku batetik bestera. Konponbideak ere, hartaz, kasuan kasurako egokienak aurkitzen saiatu beharko da, helburu nagusia beti ere bertako eskola-umeen euskalduntzea edo alfabetatzea izanik.

Kasu bakoitzerako egokienak liratekeen konponbide zehatzak ez daude gaur-gaurkoz, bestalde, hain garbi. Arrazoi asko daude, hartaraz gero, bide baten eta bestearen alde: jokabide desberdin horiek berekin dakartzaten etekin-neurketa konparatuak, ordea, aski urriak dira eta, inoiz baino gehiago, elkarren kontrakoak.

Soluziobide egokienak guztiz begien bistakoak liratekeen kasuetan ere irakaskuntza-sistema orok eskakizun horiei gautetik goizera erantzun ahal izateko berekin dituen baldintzapen-mugak ez dago inola ere ahazterik (hartarako irakasle-premia, ikasketa-programen oinarritzko muga-finkapena, gurasoen eskabideak ...).

Horregatik guztiagatik Hezkuntza Saila ez da gai honetan, beste hainbatetan bezala, erabateko agindu zorrotzik ematearen aldeko. Hobe deritzo, aitzitik, Bizkaian euskara edo euskaraz irakasten ari diren irakasleentzat eta ikasketa-munduarekin harremanik duten erakunde, elkarte eta norbanakoentzat bide-adierazle eta lagungarri gerta daitezkeen orientabideak eskaintzea.

Orientabide horiek huts-hutsean gera ez daitezzen, bestalde, eginahal biziak egingo ditu Hezkuntza Sailak hartarako baliabide egokienak, be re irispidetan leudekeen neurrian, jartzen, sortzen edo bultzatzen.

II. ORIENTABIDEAK

- 11.1. Eskola-umeek euskara ondo ikas dezaten izan behar du beti ere, alor honi dagokionez, euskaraz diharduen irakasle ororen lehen helburu eta xede nagusia. Batuaz nahiz bizkaieraz ari, euskaraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten ondo dakien eskola-umeak erraz lortuko du hizkuntza-eredu batetik bestera pasatzea; forma bat ondo ikasitakoan erraz ikasiko du bestea. Euskara jakitea da beraz, ikuspegi honetatik, garrantzitsuena; batuaren eta euskalkiaren arteko auzia helburu nagusi horren menpeko arazoa da, ez inola ere haren pareko edo are gainerakoa. Umeak euskara erraz, bizi eta halako maila jaso batean egitea lortzen den neurrian, irakaskuntzaren bidez hain beharrean gauden belaunaldi gazteenganako hizkuntza-transmisio zoli eta joria segurtatzen den heinean, beterik dago helburu nagusia. Hartarako bide dira gainerako auziak, Hezkuntza Sail honen ustez, ez haren aurretiko aukerakizun erabakitzaile.
- 11.2. Hartarako bideak desberdinak izan daitezke, oraindainokoa izan diren bezalaxe. Batak batuaz jardungo du nagusiki, besteak bizkaieraz, hurrengoak bizkaieratik baturantz joko du mailaz maila. Ez da kasurik ere falta hasieratik beretik era nahasian dihardutenenik, ez eta ahoz batera eta idatziz bestera jokatzeko dutenenik.

Jardunbide desberdin horien arteko aukera egiterakoan badirudi ondoko faktoreek bederen ondo kontuan hartzea komeni dela:

- ikasgelatik kanpora eskola-umeak bere euskara erabiltzeko aurkituko duen lagunarte-giro eta gizarte-ingurunea.
- ikasleen hizkuntza-gaitasuna: ikasgelako umeak % zenbat diren etxetik euskaldun.
- irakasleen hizkuntza-gaitasuna: irakasleak bere eskola-umeekin ahoz zein idatziz bizkaieraz eta batuaz jarduteko duen benetako ahalmena.
- irakasmaila: batez ere ikasle euskaldunek, adinaren arabera, etxeko hizkera-bidetik urrunduagoko formetara pasatzeko daukaten erraztasuna.

Bide desberdinotan barrena aritzerakoan badirudi, halaz ere, oraindainokoa baino kontuagotan hartu behar litzatekeela ikastetxe barruko jokabideen arteko koherentzia minimo bat, bai programazio-mailan eta bai berauen iraupen-aldian: ikasleak ez luke behin eta berriz ikasturte batetik hurrengora, bertako irakasleen uste-aburu eta jokabide desberdinengatik edota Juntak bat-batean hala erabaki dezakeelako, hizkuntza-ereduz itsumustuka aldatzen ibili behar.

- 11.3. Hezkuntza Sailak ez du uste hortaz inongo bide konkretu, bere huts-hutsean eta beste inolako baldintza-xehapenik gabe, ezinbestean ona edo txarra denik. Hobeia edo txarragoa izan daiteke, hori bai, aldez aurretik ongi finkaturiko helburua betetzeko eta aski segurutzat eman daitezkeen baldintza minimoei erantzuteko egokia edo desegokia gertatzen den neurrian.

Aldez aurretiko helburu eta baldintza minimo horiei dagokienez, hain zuzen, ondoko zehaztasunok eskainiko lituzke Hezkuntza Sailak, ezer eskaintzekotan.

- a) Bizkaiko eskola-ume guztiei baliabide egokiak eskaini behar zaizkie, gainerako lurraldeetakoei bezala, Lehen Hezkuntza amaitzerakoan aski den adinako euskararen ezaguera praktikoa lortu ahal izan dezaten. Ahozko nahiz idatzizko ulermenean neurtzen da ezaguera-maila hori batetik, eta bestetik mintzamen-idazmenetan.
- b) Eskola-umeak, normalean, euskara-eredu bat (batua edo bizkaiera) menperatuko du batez ere Lehen Hezkuntzaren amaieran, etxetik eta inguru-girotik zekienaren eta eskolan eman zaionaren arabera. Hezkuntza Sailaren ustez arras komenigarri da eskola-ume horiei, eredu horretan lasai aritzeko gaitasuna eskuratzear gainera, beste ereduaren ezaguera duin eta eragingarria ere eskaintzea. Lehen Hezkuntzako azken zikloa izan daiteke itxuraz, goian aipaturiko gaitasun hori lortu den neurrian, eskola-umeek hizkuntza-eredu batetik bestera pasatzen ikasteko aldi egokia.
- e) Ondo azpimarratu behar da, dena dela, hizkuntza-eredu batetik bestera pasatzeko eskola-umeak lehendabiziko eredu ondo menperatzea komeni dela. Eta menperatzeak, hemen, hizkera-bide horretan era egoki, jariakor eta errazean hitz egiteko gai izatea esan nahi duela oso bereziki.
- d) Alde horretatik aski multzo bereziak osatzen dituzte, beren batez bestekoan, hurrenez hurren etxetik euskaldun eta erdaldun diren eskola-umeek. Badirudi lehenengo multzoaren kasuan hobesgarria dela tokian tokiko hizkera-bidetik abiatzea eta, ezagunetik ezezagunera eramanez, hartarako gaitzen den neurrian euskara batura pasatzea. Pasabide hori Lehen Hezkuntzaren hasiera-zikloan, erdikoan ala azkenean egitearen komenentzia ikastetxe bakoitzak ikusi beharko du batez ere, bertako ikasleen egoera eta gainerako faktore baldintzatzaileen nolakoa kontuan izanik.

Irakasleak indartu egin behar du haurrak etxetik ongi dakarrena, oker dakarrena zuzendu eta hutsuneak osatuz joan; umearen ezaguera-gaitasunetatik urrun dagoen eredurik ezartzen saiatzeak berekin duen arriskuaz, etxetiko euskararen eta euskara batuaren zilborrestea etetearenez, jabetzea garrantzitsua da Hezkuntza Sailaren ustean.

- 11.4. Ezagunetik ezezagunera eta bizitik idatzirako pasabide horretan, ahozko zereginetara dagokienez oso kontuan hartzekoa da umeak etxetik dakarren hizkera-bidearen osatu beharra ebakera mailakoa dela neurri ohargarri batean: haurrak bere hitzak osorik ebakitzen ikastea, hainbat eratako kontrakzioak gaindituz, ezin garrantzitsuagoko pausoa da ikaslea etxetiko hizkera-bidetik baturantz bideratzeko.

11.5. Idatzizko zereginei dagokienez, bestalde, Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarreko Adierazpenean azaldutakoan oinarriturik ondoko ezaugarriok definitzen dute, Hezkuntza Sail honen ustez, bizkaieraren idatzizko eredu hori:

- 1.- Ortografia, bere osotasunean, Euskaltzaindiak adierazitakoa.
- 2.- Morfosintaxiari dagokionez, batez ere aditz- eta izen-jokoetan, bertako forma jatorrak.
- 3.- Hiztegiak denaz bezainbatean, azkenik,
 - ohiko ondare lexikaleko hitzak, bizkaieraz
 - irakaskuntzarako hitz bereziak, gai horiek lantzen dituzten gainerako ikasliburuetan nagusituz doazen formetara bildu oro har.

Izen- eta aditz-jokoei dagokienez berandu baino lehen argitaratuko ditu Hezkuntza Sail honek hartarako finkaturiko forma ereduak.

III. BALIABIDEAK

Euskararen erabilera Bizkaiko irakasmunduan hobetu eta egokitu ahal izateko agindu nahiz orientabideak ez dira, bistan denez, aski.

Hezkuntza Sailak ondoko eginkizunak ikusten ditu batez ere, orientabide horietan esandakoei erantzun praktikorik eman ahal izateko, bultzatu eta indartu beharreko:

- a) jadanik urratzen hasia duen ildoari jarraituz euskal ikasliburugintza sendo, ugari eta beharrian desberdinen asebetegarria indartzen ahaleginduko da. Hizkuntza-eredu bietako materialen prestakuntzarako laguntza-bideak lanabes egoki eta prestua dira horretarako, besteren artean ikasmaterial horien edukizko, hizkuntzazko eta pedagogia-azalpenezko egokitasun-maila arrazoizkoak ahalbidetzen dituzten neurrian.
- b) irakasleen egokitzapen-prestakuntza da, guztiarekin ere, Hezkuntza Sailaren ustez hobekuntza-planaren giltzarri eta eragile nagusia. Eginahal bereziak egingo ditu Sail honek, horregatik guztiagatik, jadanik lanean diharduten irakasleei edo eta bihar-etziko irakaslegaiei hizkuntza-prestakuntzazko aukerabide ugari, egoki eta zabalak eskaintzen.
- e) neurbideak ezarriko ditu Hezkuntza Sailak hizkuntza-ereduzko jardunbide diferenteetan oinarrituriko ikas-saiakuntza desberdinekin lortuz doazen emaitzak konparatzeko. Lortuz doazkeen emaitza horien berri emango die Hezkuntza Sail honek, aldian-aldian, Bizkaiko euskal irakasle eta gainerako interesatuei.

Gasteiz, 1982ko urriak 22
(gaur eguneko idazkera-arauetara moldatua)